



ITZULPEN, ZUZENKETA ETA INTERPRETAZIOKO TEKNIKARI- PLAZAK BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUKO 1. ARIKETA: ZATI ESPEZIFIKOA

I. INTERPRETAZIOA-ITZULPENA-TERMINOLOGIA-HIZKUNTZEN ARTEKO ERAGINAK

1. Adieraz ezazu erantzun zuzena. Ikusizko interpretazioa:

- a) Ez da itzulpen-teknika bat.
- b) Interpretazio-teknikatzat eta interpretazio-modalitatetzat har daiteke, baina estrategia pedagogikotzat ere erabiltzen da.
- c) Estrategia pedagogiko bezala erabiltzen da batez ere, aldibereko interpreteen formakuntzarako.
- d) Ez da erabiltzen idatzizko itzulpenean.

2. Nola deitzen zaio testu idatzi batetik abiatuta interpreteak egiten duen ahozko itzulpenari?

- a) Ahozko interpretazioa
- b) Testu-interpretazioa
- c) Ikusizko interpretazioa
- d) Irakurrizko interpretazioa

3. Zein da *relearen* azarorik handiena?

- a) Denbora luzea pasaten dela jatorrizko mezua sortzen denetik.
- b) Hainbat hizkuntza-konbinazio egon daitezkeela.
- c) Tresneria egokia behar dugula.
- d) Lehen interpretea behar bezain ondo ez aritzea.

4. Non hasi zen erabiltzen aldibereko interpretazioa?

- a) Nazioen Elkartean
- b) Nazio Batuen Erakundean
- c) Nurenbergeko epaiketetan
- d) Lanaren Nazioarteko Erakundean

5. EU>ES norabidean, testu idatzien ahozko interpretazioan, zeri ipini behar diote arreta berezia interpreteek?

- a) Testua irakurtzen duen hizlariaren lastertasunari.
- b) Itzulpen ahalik eta literalena egiteari.
- c) Esaldietako osagaien antolaketa desberdinari.
- d) Esaldien luzerari.



6. Adieraz ezazu erantzun zuzena. EAEko justizia-auzitegietan erabiltzen den interpretazio-mota:

- a) Loturazkoa
- b) Aldiberekoa
- c) Esan ostekoa
- d) Ez da egiten interpretaziorik

7. Adieraz ezazu erantzun zuzena. Hizkuntza batek beste batetik bereganatutako hitz edo baliabide lexikoa:

- a) Transposizioa
- b) Kalkoa
- c) Mailegua
- d) Erdarakada

8. Adieraz ezazu erantzun zuzena. “Cuando varíe cualquiera de los datos, se deberá...” “Edozein datu aldatzen bada,...”:

- a) Itzulpen librea
- b) Transposizioa
- c) Parafrasia
- d) Zuzeneko itzulpena

9. Adieraz ezazu erantzun zuzena. En español no es un préstamo naturalizado:

- a) “Pizza”
- b) “Fútbol”
- c) “Champú”
- d) “Ciencia ficción”

10. Adieraz ezazu erantzun zuzena. “Es menos joven” “Ez da hain gaztea”:

- a) Modulazioa
- b) Egokitzapena
- c) Parafrasia
- d) Transposizioa

11. Ejemplo de calco semántico:

- a) Ratón (dispositivo informático), del inglés *mouse*
- b) Rascacielos, del inglés *skyscraper*
- c) Sintecho, del inglés *homeless*
- d) Jardín de infancia, del alemán *kindergarten*



12. Adieraz ezazu erantzun zuzena. Gaztelaniazko testu formaletan:

- a) Egitura parataktikoak izaten dira ugariagoak
- b) Egitura hipotaktikoak izaten dira ugariagoak
- c) Egitura parafrastikoak izaten dira ugariagoak
- d) Egitura perifrastikoak izaten dira ugariagoak

13. Gaztelania formalaren estiloan, esaldia antolatzean aditz nagusiaren ondoren mendeko perpausak kateatzeari deitzen zaio:

- a) Formulazio hedatua
- b) Tartekia
- c) Justaposizioa
- d) Parafrasia

14. Euskarazko itzulpenetan, oro har, estrategia gomendagarria:

- a) Estilo parataktikoa gehiago erabiltzea
- b) Estilo hipotaktikoa gehiago erabiltzea
- c) Estilo parafrastikoa gehiago erabiltzea
- d) Estilo perifrastikoa gehiago erabiltzea

15. Adieraz ezazu erantzun zuzena. Gaztelaniazko testu administratiboetako esaldi askoren hasieran, egitate baten aurrekariak adierazteko sarri erabiltzen den mendeko perpauseko partizipio narratiboaren lekuan euskaraz testu arinagoa lortzeko gomendatzen den joskera mota (Adib.: Promovidas sendas cuestiones de competencia por el órgano correspondiente, y efectuada la comunicación pertinente a la Junta de portavoces, la Mesa decidió...)

- a) Partizipioa duen mendeko perpausa perpaus lokabe edo perpaus nagusi bihurtzea, aditza jokatuz.
- b) Euskaraz gaztelaniazko perpaus nagusia aurreratzea, atzerakarga gutxitzeko.
- c) Bi esaldiak alborakuntzan jartzea, biak perpaus lokabe bihurtuz.
- d) Zehaztasunaren kalterako litzateke gaztelaniaz ez bezalako itzulpen-estrategia erabiltzea.

16. Adieraz ezazu erantzun zuzena. Esaldi batean lehenago aipatu den osagairen bat izenordain edo kideko baten bidez berraipatzea:

- a) Komunztadura
- b) Anafora
- c) Errepikapena
- d) Katafora



**17. “Hona hemen herri horietako batzuen izenak: Lasarte, Agurain, Zeanuri...”
Nola deitzen zaio azpimarratutako egiturari?**

- a) Deiktikoa
- b) Katafora
- c) Galdegaia
- d) Anafora

18. Adierazi itzulpen-estrategia egokia:

- a) ZEIN-erlatiboak saihestea gaztelaniazko erlatiboak itzultzeko.
- b) Gaztelaniazko orainaldi historikoaren ordezt, lehenaldiko aditz-formak erabiltzea.
- c) Gaztelaniazko adjektibo erreferentzialen ordezt hitz-elkarketa erabiltzea.
- d) Gaztelaniazko egitura pasiboen lekuan, adizki inbertsonalak erabiltzea.

19. Erlatibo murrizgarria esateko beste termino bat:

- a) Erlatibo anaforikoa
- b) Erlatibo apositihoa
- c) Erlatibo esplikatiboa
- d) Erlatibo espezifikatiboa

20. “Iratxe, zure laguna, geroago etorriko da”. Zer egitura da azpimarratuta dagoena?

- a) Mintzagaia
- b) Aposizioa
- c) Juntadura
- d) Alborakuntza

21. Adierazi izenlaguna duen perpausa:

- a) Janari goxoa atera ziguten jatetxe hartan.
- b) Herri-kantek kultura-altxor baliotsua osatzen dute.
- c) Alkateak ebazpen bat atera du gai honi buruz.
- d) Plaza Berriko taberna batean aurkitu genuen.

22. Bakarra da zuzena

- a) Nazioarteko eskubidea ikasi beharrean zegoen.
- b) Aldeko bozka eman zuten.
- c) Komunitate unibertsitariaren esku dago.
- d) Subiranotasuna aldarrikatzen zuten.



23. Legebiltzarkideen hitzaldien transkripzioetan, “kriston”, “izorratu” eta tankera bereko lagunarteko esamolde adierazkorak (adierazi erantzun zuzena):

- a) Beren hartan emango dira, inolako markarik gabe.
- b) Kakotx artean ipini behar dira beti.
- c) Letra etzanez jarriko dira.
- d) Adierazkorak ez diren hitz eta esamoldeez ordezkatu behar dira.

24. Adieraz ezazu erantzun zuzena. “Bedeinkatu” hitza:

- a) Eratorritako hitza da.
- b) Mailegu egokitua da.
- c) Ondare lexikoan errotutako mailegua da.
- d) Euskal jatorriko hitza da.

25. Legebiltzarkideen hitzaldien transkripzioetako irizpidea da:

- a) Hizlariak esandakoa bere hartan jasoko da beti, hitzez hitz, ezer aldatu Gabe.
- b) Bizkaieraz egindako hitzaldiak bizkariara estandarrean jarriko dira.
- c) Euskara batua bakarrik erabiliko da.
- d) Erdarakada gordinak saihestu behar dira.

26. Legebiltzarkideen hitzaldien transkripzioetan, maileguak...:

- a) ontzat emango dira beti legebiltzarkideek erabilitako guztiak.
- b) Hiztegi Batuan jasota daudenak bakarrik onartuko dira.
- c) letra etzanez jarriko dira.
- d) euskararen fonetikaren eta idazkeraren arabera idatziko dira beti.

27. Legebiltzarkideen euskarazko hitzaldien transkripzioetan, itzuli gabe emandako “Tribunal Supremo”, “ONU” eta tankera bereko erakundeen izen eta sintagmak:

- a) Beren hartan utziko dira, inolako zuzenketarik Gabe.
- b) Kakotx arteak ipini behar dira beti.
- c) Letra etzanez jarriko dira.
- d) Euskaraz dagokien izenarekin ipiniko dira.

28. Adierazi irizpide zuzena, Legebiltzarreko transkripzioetarako:

- a) Euskarazko mintzaldi batean sartutako beste hizkuntza bateko sintagma solteak euskarara itzuli behar dira.
- b) Pertsonen abizenak idaztean dagokion pertsonaren nahia errespetatu behar da.
- c) Euskalkietako fonetismoak kakotx artean ipini behar dira.
- d) Ehunekoen kopuruak artikuluekin ipini behar dira.



29. Señala la frase incorrectamente formada, que debe ser corregida:

- a) Yo creo que debiéramos ponernos las pilas.
- b) Otro punto especialmente subrayado por los sindicatos fue los chalecos antibala.
- c) La plaza que quedase vacante se ofertará automáticamente para su cobertura por el sistema previsto en la oferta de empleo público.
- d) La mitad de los concejales se salieron del salón de plenos municipal en este punto.

30. Adierazi zuzenketarik behar ez duen esaldi bakarra:

- a) Araba, Bizkai eta Gipuzkoako jatetxeek bezeroen erregistro bat gorde beharko dute.
- b) Elkarbizitza eta Gizarteratzeko Plana adostu dute alderdi politikoek.
- c) Irizpide ekonomiko eta gastu sozialari dagokienez.
- d) Unibertsitate eta bestelako ezagutza-erakundeen arteko elkarlana.

31. Adierazi kalko baztergarria daukan esaldia:

- a) Entsalada errusiar oso gozoa egiten dute jatetxe horretan.
- b) Aurrez arreko klaseak astelehenean hasiko direla eman dute jakitera.
- c) Madrilek izoztu egin nahi du gutxieneko soldata.
- d) Ez dut kezka gehiegirik horretaz.

32. Euskaltzaindia, Eusko Legebiltzarra, Nafarroako Parlamentua eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako batzar nagusien arteko elkarlanaz egindakoa adierazi:

- a) Zuzenbidearen oinarrizko hiztegia
- b) Oinarrizko parlamentu-hiztegia
- c) Oinarrizko hiztegi juridikoa
- d) Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa

33. EAEko eta Nafarroako Foru Komunitateko ganbera legegile guztietako ordezkari instituzionalen eta Euskaltzaindiaren onespenez egindakoa argitalpena adierazi:

- a) Hizkera inklusiboaren gida
- b) Euskal Zuzenbide Zibilaren oinarriak
- c) Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa
- d) Administrazio-Zuzenbidea



34. Adierazi kalko desegokia darabilen esaldia:

- a) Herri desberdinetan bizi dira gure gurasoak.
- b) Ez dira saiatuegiak nire ikasleak.
- c) Gaitz da askotan besteren arrazoiak onartzea.
- d) Euskarazko podcast berri bat hasi naiz entzuten gaur.

35. Maileguen arloan, gutxienezko baldintza bat ezarri zuen Euskaltzaindiak. Horren arabera, ezin dira maileguan hartu Iparraldeko euskaldunek gaztelania jakin gabe ulertzerik ez duten gaztelaniazko hitzak, ezta hegoaldeko euskaldunek frantsesa jakin gabe ulertzen ez dituzten frantsesezko hitzak ere. **Baldintza horren arabera, zein EZ da onartzeko moduko mailegua?**

- a) Armada
- b) Ebakuntza-gela
- c) Laberintoa
- d) Abioia

36. Termino mota berria, hizkuntza hartzailean lehendik dagoen hitz batek beste hizkuntza batetik datorren esanahi berria hartzen duenean gertatzen dena:

- a) Maileguzko esanahia
- b) Zabalkuntza semantikoa
- c) Mailegu sintaktikoa
- d) Kalko semantikoa

37. Baztertu beharreko mailegua duen esaldia adierazi:

- a) Kirofanotik ateratzen denean ikusi ahal izango duzue.
- b) Kaserna zaharra eraitsiko dute datorren hilean.
- c) Puntu kilometriko horretako radarrak gidari asko harrapatzen ditu.
- d) Orangutanen bizilekua den oihan birjina gero eta zatikatuago dago.

38. Hiztegi hauetatik zein ez du oraindik onartu Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordeak?

- a) Oinetakoen Hiztegia
- b) Turismo Hiztegia
- c) Altzarien Hiztegia
- d) Nautika Hiztegia

39. Zein EZ da Terminologia Batzordeak onartutako hiztegia?

- a) Egungo Euskararen Hiztegia
- b) Toki-Administrazioaren Hiztegia
- c) Herri-Ogasunaren Hiztegia
- d) Prozedura Kriminalaren Hiztegia



40. Zein EZ dago onartuta Euskaltzaindiaren Hiztegia?

- a) Humore
- b) Serbitu
- c) Chef
- d) Espreski

41. Seinalatu zuzendu beharreko esaldia:

- a) Egiatan behar zaitut goraipatu, ezen eginak dituzu hainbat ekintza on.
- b) Noski salatu behar dugula zuen taldeak erakutsi duen jarrera deitoragarria!
- c) Arratiako "Bilketa solidarioak" hainbat pertsona eta enpresen basesa lortu du.
- d) Hori egiteko, kemena eta adorea behar da.

42. Zein da Euskalterm terminologia bankua kudeatzen duena?

- a) UZEI
- b) Eusko Jaurlaritza
- c) Terminologia Batzordea
- d) Elhuyar Fundazioa

43. Gaur egungo Europar Batasuneko departamendu arteko terminologia datu-basea:

- a) Inter-Active Terminology for Europe (IATE)
- b) Eurodicautom
- c) Euroterms
- d) Euterpe

44. Euskalterm datu-basean, Terminologia Batzordearen 4Eu ponderazio-marka daramaten terminoak:

- a) Termino onartuak, baina ez lehenetsiak
- b) Termino onartuak
- c) Behin-behinean normalizatuak/gomendatuak, onespeneren zain
- d) Termino normalizatuak/gomendatuak

45. Euskaraz ez dagoena:

- a) BOEn euskaraz argitaratutakoen itzulpen-memoria
- b) Bizkaiko Foru Aldundiaren itzulpen-memoria
- c) Literatura Unibertsala bildumaren itzulpen-memoria
- d) Europako zuzentarau eta erregelamenduen itzulpen-memoriak



46. Zein motatakoa da Orotariko Euskal Hiztegia?

- a) Hiztegi arauemailea
- b) Hiztegi historikoa
- c) Hiztegi etimologikoa
- d) Tesaurora

47. Lexikoa ikuspegi teorikotik aztertzen duen jakintza-arloa:

- a) Terminologia
- b) Lexikologia
- c) Lexikografia
- d) Hiztegi gintza

48. Zein da garai, toki eta mota guztietako euskal corpus diakronikoa, izaera deskriptiboa duena, ez arauemailea?

- a) Orotariko Euskal Hiztegia
- b) Euskararen Corpus Historikoa
- c) Lexikoa Atzo eta Gaur
- d) Euskalterm

49. Real Academia Española delakoak garatutako corpus edo datu-base linguistikoa, 1997tik aurrerako testu idatzietako hitz eta esamoldeak estatistikoki jasotzen dituen:

- a) Corpus de Referencia del Español Actual (CREA)
- b) Corpus General de la Lengua Española (CGLE)
- c) Corpus del Español Moderno (CEM)
- d) Corpus Diacrónico del Español (CDE)

50. Zein da itzultzaile automatikoak egindako itzulpena zuzendu eta hobetzeko prozesua?

- a) Zuzenketa
- b) Post-edizioa
- c) Orrazketa
- d) Berrikuspena



II. GRAMATIKA- MORFOLOGIA-SINTAXIA (EUSKARA)

51. Ahozkoan aditzen kasu-erregimena ez da batzuetan ondo jarzen, hizketaren bat-bateko gestioak edo euskara ondo ez menderatzeak eraginda. Hauetatik zeinetan EZ dago izen-sintagma esaldian egoki txertatuta?

- a) Gure enpresan ez dago kontratu milionariorik.
- b) Pozten gara erdibideko zuzenketa batera heltzeaz.
- c) Politikan sartu gabe ez dago aukera ezertarako.
- d) Lehiatzaileak azterketa berraztertzea eskatu zuen.

52. Aditzizena eta partizipioaren arloan huts asko gaztelaniako gerundioaren kalkatzetik datoz. Esaldi hauetatik, zein da zuzena?

- a) Gaurkoan saiatuko naiz ikasgaia laburki azalduz.
- b) Hasi zara esaten presidenteak oso erantzun eskasa ema ziola gure eskakizunari.
- c) Partaidetza zabal hori hitzarmen bat sinatuz bermatu zen.
- d) Baina agerraldiak irakurtzen eta batarekin eta bestearekin hitz egiten, uste dut...

53. “Bat” zenbatzailea gaizki erabili ohi da askotan, gaztelaniako formen eraginez. Zeinetan dago, aldiz, zuzen erabilia?

- a) Eta ez da tontakeria bat berriro ere aipatzea.
- b) Populazio-dentsitate handi bat daukagu eta, aitzitik, lur txikia.
- c) Beroa dela-eta, arbitroak hiru minutuko geldione bat egingo du.
- d) Behin batean, ikazkin bat basora joan zen eta denbora luzean aritu zen lanean.

54. Adieraz ezazu erantzun zuzena. Transkripzioak egiteko orduan, Eusko Legebiltzarraren “Ahozko testuak zuzentzeko irizpideak” delakoan jasota dago:

- a) Hizlariak euskaraz erabiltzen dituen mailegu guztiak onartuko dira, eskubidea baitu erregistroa aukeratzeko
- b) Euskalkian egindako hitzaldiak bere hartan utziko dira, baina euskara batuaren ortografia erabiliz
- c) Hizlariak euskaraz erabilitako mailegurik gordinenak bakarrik zuzenduko dira, euskaraz dagokien esapidearekin
- d) Hizlarien abizenak euskal grafian jarriko dira euskal jatorria dutenean

55. Adieraz ezazu esaldi zuzena.

- a) Pozten gara adostutako zuzenketa batera heldu izana.
- b) Egoitza berria zabaltzea izan da azken aldaketa.
- c) Azken berria gaixo larrien kopurua goraka doala da.
- d) Euskal Herria ondo ezagutzeak benetan merezi du.



56. Adieraz ezazu baieztapen zuzena:

- a) "Horixe egingo zuen zu izan ezik beste edozeinek" esaldia gramatikalki zuzena da
- b) "Horixe egingo zuen zuk izan ezik beste edozeinek" esaldia gramatikalki okerra da
- c) "Zuk ezik beste guztiek bukatu dute azterketa" esaldia gramatikalki zuzena da
- d) "Zuk ez ezik beste guztiek ere ez dute bukatu azterketa" esaldia gramatikalki okerra da

57. Komunztadurari dagokionez, subjektu-objektuen eta adizkiaren artean numeroa bat ez datorrenean, zuzendu egin behar da. Hauetatik zein EZ da zuzendu behar?

- a) Txarrak dira interes partidistak helburu bezala hartuta erabaki politikoak hartzea.
- b) Deskalifikatu egin duzu pixkat erakunde horiek.
- c) Eragile desberdinek badakite lege honen onurak.
- d) Guk badauzkagu hemen bi eredu.

58. Komunztadurari dagokionez, subjektu-objektuen eta adizkiaren artean kasua bat ez datorrenean, zuzendu egin behar da. Hauetatik zein da zuzena?

- a) Baina zure jarrera da guri kezkatzen gaituena.
- b) Argi dago ezin diegula behartu nahi ez dutena egitera.
- c) Eskertu nahi dugu urteotan gurekin batera lan eta borroka egiten duten guztiei
- d) Etzait harritzen zure lantokian ordenadoreak funtzionatu ez izatea.

59. Adieraz ezazu esaldi zuzena:

- a) EIZIE elkarteak 1987an sortzen da, Martuteneko Itzultzaile Eskolako irakasleek eta ikasle batzuek bultzatuta.
- b) Proposamen bat aurkeztu zuen X andreak duela bi aste, eta batzorde bat osatzea eskatzen zuen bertan.
- c) Uste dut lehenago ez naizela ondo esplikatu.
- d) PP eta EAK taldeek babestu zioten Talde Sozialistaren proposamenari

60. Zein kasutan dago ondo jarrita galdegaia?

- a) Hori ere funtsezkoa da birgogoratzea.
- b) Eta gainera pentsatzen du aldatu behar dela.
- c) Sindikatu nagusia, bat kenduta, abstenitu ziren.
- d) Momentu honetan badakigu beharrezkoa dela erroldatuta egotea.



61. Adieraz ezazu erantzun zuzena. Perpausetako mintzagaia...:

- a) atzealdean ere joan daiteke.
- b) esaldiaren barruan enfasi berezia hartzen duen osagaia da.
- c) kasu absolutiboan joaten da beti.
- d) ezin da koma baten bidez bereizi galdegaitik.

62. Adieraz ezazu esaldi okerra:

- a) Askok gustatzen zait harremana jende gaztearekin.
- b) Horrek lotura handia du autoestimuekin.
- c) Zerikusi zuzenagoa du horrek idazle bakoitzaren estiloarekin.
- d) Gaueko albistegia berri lazgarri batekin zabaldu da.

63. Adieraz ezazu esaldi zuzena:

- a) Ez genuen grabatu hasierako elkarrizketa ikasleekin.
- b) Gure taldeak alde bozkatuko du lege-aldaketa hau onartzeko.
- c) Mozioaren aurkako gure botoaren zergatiak azalduko ditut.
- d) Emakumeen presentzia bultzatu behar da zientzia-ikasketetan.

64. Adieraz ezazu hitz-ordena egokia duen esaldia:

- a) Gure asmoa datorren urterako eskola berria eraikitzen hastea da.
- b) Ez zitzaion gehiegi gustatu esan zenuena gazteen hizkuntza-ohiturei buruz.
- c) Horiek gure ustez dira hartu den erabakiaren arrazoiak.
- d) Oinarritzko errenta ehuneko 81etik, uste dut, 85era pasatu da.

65. Adieraz ezazu koma ipini gabe anbigua den esaldia:

- a) Geu joango gara bihar ez badator.
- b) Urtero gero eta jende gehiagok behar izaten du laguntza.
- c) Legea aurrera aterako da zuek alde bozkatzen ez baduzue ere.
- d) Azterketaren bigarren zatia abenduan edo urtarrilean egingo da.

66. Adieraz ezazu galdegaia egoki kokatua duen esaldia:

- a) Gizon bat, arropa dotorez jantzia, ikusi nuen geltokian.
- b) Nire ustez, txikitatik hezi behar ditugu haurrak telebista ikusten.
- c) Lan Zuzenbideari hortik bere izaera bikoitza datorkio.
- d) Epai bat jaso egin da, erabakia aldaraziko duena.



67. Komunztadura okerrak ikusi ohi dira perpaus erlatiboetan ingurumari jakin batzuetan. Hauen artean, esaterako, perpaus bakarra dago ondo osatuta. Zein da?

- a) Kalkula ezazu hiru autok dituzten gurpil kopurua.
- b) Hobe duzu ahaztea konpontzerik ez daukazun gauzak.
- c) Ez du kontuan hartu ikasleek esaten ari zirena.
- d) Horra hor ekartzeko esan didazun liburuak.

68. Ondorengo juntagailuon erabileran, zeinek EZ du Euskaltzaindiaren 111. araeuan jasotako gomendioa betetzen?

- a) Errealitatea eta fikzioa nahasten ditu.
- b) Itsasoan eta lehorrean bizi diren narrastiak.
- c) Ama eta amamarekin bizi da.
- d) Eskuz eta palaz jokutzen du.

69. Perpaus hauetako zein EZ dago ongi osatuta?

- a) Ez nekien etorriko zinen.
- b) Ez nekien etorriko zinenik.
- c) Ez nekien etorriko zinenetz.
- d) Ez nekien etorriko zinen ala ez.

70. Ondorio-perpaus hauetan, zein EZ da zuzena?

- a) Hain da ederra, denak liluraten ditu.
- b) Hain ederra da, denak liluratzen dituela.
- c) Denak liluratzen ditu, hain da ederra.
- d) Hain ederra da, denak liluratzen ditu.

71. Esaldietako batek okertzat jotzen den egitura du:

- a) Datorren urtean hauteskundeak egongo diren ustea zabaltzen ari da.
- b) Lehen aldia da horrelako lotsagabekeria entzuten dudala.
- c) Hil edo biziko auzia dugu hau.
- d) Han ziren Agirre edo Arrieta bezalako idazle ezagunak.

72. Seinalatu zuzendu beharreko esaldia:

- a) Konturatu beharko genuke zer ari garen galtzen.
- b) Gutxitan jartzen da zalantzan euskara denik Euskal Herriaren ondarrerik handiena.
- c) Gaizki jokatu izana du kezka.
- d) Ez dute esan Mikel etortzekoa dela.



73. Seinalatu zuzendu beharrekoa ez den esaldia:

- a) Hobe ahazten badituzu konpontzerik ez dauzkazun arazoak.
- b) Aipatu horrelako lan batek izan behar dituen ezaugarriak ontzat jotzeko.
- c) Zenbatu behar duzue bizkarrezurrean ditugun orno kopurua.
- d) Hemen dituzu ekartzeko esan didazun liburuak.

74. Seinalatu okertzat jo beharrekoa den esaldia:

- a) Larunbatean ezezik, igandean ere geratuko gara aterpetxean.
- b) Kontraturik ezean, beste egiaztagiri bat aurkeztu beharko du.
- c) Egunero nago libre, asteazkenetan izan ezik.
- d) Profeta ez ezik, igarlea ere ez naiz.

75. Señala la respuesta correcta. Expresiones como “total unanimidad” o “monopolio exclusivo” son:

- a) Circunloquios
- b) Redundantes
- c) Paronímicas
- d) Hiperbólicas

76. Adieraz ezazu nominalizazio gramatikala zuzena:

- a) Debekatuta dago tabakoaren salmenta adin txikikoei.
- b) Nire egonaldiak Parisen hilabete iraun zuen.
- c) Nire irakurraldia jendaurrean ez zen ondo atera.
- d) Eskualdeen parte-hartzea Europaren eraikuntzan.

77. Adieraz ezazu arauzkoa ez den zerbait daukan esaldia:

- a) Portuges itsasontzi batek erreskatatu ditu patera batean zihoazen 40 migratzaileak.
- b) Abokatu europearrek deontologia profesionala adosteko konpromisoa hartu dute.
- c) Aratusteetako kontzertuak arrakasta handia izan du bergararren artean.
- d) Nawal Al Saadawi feminista egiptoar handia zendu da.



78. Adieraz ezazu arauzkoa ez den zerbait daukan esaldia:

- a) Hauteskunde hauetan beren ikuspuntua demokratikoki adierazteko aukera izango dute venezuelarrek.
- b) Leku askotan, estatu islamdarrak eraikitzearen aldeko mugimenduak indartu dira.
- c) Erdi Aroko zientzialari arabo-musulmanei esker zabaldu ziren antzinako matematikari greziarren testuak.
- d) Gehiago kostatzen zait estatubatuar filmetako ingelera ulertzea.

79. Adieraz ezazu esaldi zuzena:

- a) lazkoaren bikoitza gastatu dugu aurtengo oporretan.
- b) Hiru ordu iraun zituen zuzendaritza batzarraren atzoko bilerak.
- c) Dezimetro kubiko bat urek kilogramo bat du masa.
- d) Prezioak % 5ean igo ziren joan den urtean eta soldatak % 1,4an bakarrik.

80. Adieraz ezazu zuzendu beharreko zerbait duen esaldia:

- a) Zuk besterik ez dakizu zer den holako gaixotasuna izatea.
- b) Eskolako liburuak besterik ez dut ekarri.
- c) Zuk bestek ez daki sekretu hori.
- d) Horiek ez dira aitzakiak besterik.

81. Adieraz ezazu zuzendu beharreko zerbait duen esaldia:

- a) Ehunka lagun batu ziren maiatzak 1eko manifestaziora.
- b) Elektrizitatearen %30 haize-errotetatik lortzen dute.
- c) Ikasleen erdiek gainditu dute azterketa.
- d) Bi milaren bat lagun bilduko ziren kontzertuan.

82. Señala la respuesta correcta. Los adjetivos relacionales en castellano:

- a) Pueden colocarse tante delante como detrás del sustantivo
- b) Pueden aparecer en grado comparativo y en grado superlativo
- c) Generalmente son derivados de un sustantivo
- d) Solo se pueden colocar delante de un sustantivo, no detrás

83. Adieraz ezazu esaldi zuzena:

- a) Ez da berdina 600 - 000 hiztun edo 60 milioi hiztun izatea.
- b) Olio-koilarakada bat aski da patatak frijitzeko.
- c) Jokalari gasteiztarrak jaso ditu txaloak ugari.
- d) Gai horietaz eta beste batzuetaz hitz eginen dugu Orioko idazlearekin



Arabako Batzar Nagusiak
Juntas Generales de Álava



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

84. Zein dago gaizki?

- a) Arrazakeriarekin amaitu
- b) Baloia eskuarekin ukitu
- c) Norbaitetaz maitemindu
- d) Hilaren 20an, astelehenarekin

85. Ez dago onartuta Euskaltzaindiaren Hiztegia:

- a) Aborto
- b) Dohainik
- c) Asanblada
- d) Kaxoi

86. Adieraz ezazu pasiboaren erabilera desegokia duen adibidea:

- a) Hainbat neurri aurkeztuak izan dira bilkura honetan.
- b) Proposamenak ez dira onartuak izan.
- c) Galdetzen al diozu zuk ea gurekin etorri nahi duen mendira?
- d) Alkateak esana da aurtengo jaiak bertan behera geratuko direla.

87. Adieraz ezazu erantzun zuzena. Euskarara itzultzeko orduan, gaztelaniazko erlatibo murrizgarriak:

- a) Perpaus lokabeen bitartez euskaratu behar dira
- b) Ezin dira baldintzazko perpaus baten bitartez euskaratu
- c) Ezin dira erlatibo aposatuen bidez eman
- d) Erlatibo aposatuen bidez ere eman daitezke

88. Adieraz ezazu erantzun zuzena. Izen propio bati perpaus erlatibo arrunta eransten zaionean euskaraz:

- a) Erlatiboak balio murrizgarria izaten du
- b) Askotan erabiltzen da, baina ez da komenigarria egitura hau erabiltzea
- c) Erlatibo mota horri erlatibo erromanikoa deitzen zaio
- d) Perpaus erlatiboa izenaren aurretik baino ezin da ipini

89. Erlatibo apositiboa zuzentasun gramatikalarekin erabiltzen duen perpausa:

- a) Jende gazte arinen, zentzuz baino zangoz fidago direnen, ofizioa da dantza.
- b) Gizon aspaldi ikusi ez nituen batzuk etorri ziren.
- c) Bilbotik etorritako lagunak herriko hotelean egingo du lo.
- d) Fermin Garro irakasleari, lizentziatu berri dena, eman diote lanpostua.



90. Adieraz ezazu egitura okerra duen esaldia:

- a) Hau guztiau itxurakeria baino ez da.
- b) Batzordea eta guzti osatu dute horretarako.
- c) Pozik eta guzti dagoela dirudi.
- d) Ez dago egitura okerrik duen esaldirik, denak zuzenak dira

91. Adieraz ezazu Euskaltzaindiaren araei jarraituz baztertzeko zerbait duen esaldia:

- a) Erakunde hauen guztien arteko koordinazioa nabarmen areagotu zen.
- b) Mila eta berrehun lagunek egin dute EGAko atariko proba.
- c) Ekainaren 14an egingo da Udalaren hurrengo ohiko osoko bilkura.
- d) Nahi dugu jendeak ekintza hauez gozatzea, baina arduraz jokatuta

92. Euskaltzaindiaren araei jarraituz baztertzeko zerbait duen perpausa:

- a) Jupiter da Eguzki-sistemako bostgarren planeta.
- b) Bazen garaia norbait ausart zedin hori argi eta garbi esaten.
- c) Urrea 1 - 064 gradutan ur daiteke.
- d) Ogirik erosi bazenu, puska bat hartuko nizun.

93. Adieraz ezazu baieztapen okerra:

- a) "Euts diezaiozun" aditz forma gaizki dago
- b) "Zorrotz dezaket" aditz forma zuzena da
- c) "Ur zedin" aditz forma zuzena da
- d) "Hus zezaten" aditz forma gaizki dago

94. Bakarra da zuzena

- a) Hori egiten baduzu, aita haserretu daiteke.
- b) Burua ez duenak ez du behar txapela.
- c) Ez daukat gogo handiegirik.
- d) Gure herria hain da txikia, ez duen plazarik ere.

95. Adieraz ezazu esaldi okerra:

- a) Inoiz ez dut hainbeste pertsonik ikusi Durangoko Azokan.
- b) Pellok ez dauka ez anaiarik ez arrebarik.
- c) Entzuleen artean izan zen, bai, komentariarik.
- d) Ni baino eredu hoberik aurki dezake irakurleak bazterretan.



96. Adieraz ezazu Euskaltzaindiaren araei jarraituz baztertzeko zerbait duen perpausa:

- a) Hori da ez dakidana eta jakin gogo nukeena.
- b) Aitona txikitan eraman zuten Arantzazura apaizgo-ikasketak egitera.
- c) Batzordea gaur bildu da lege-proposamena aztertu asmoz.
- d) Zure lagun Dublinen bizi denari sari bat eman diote.

97. Seinalatu baieztapen zuzena:

- a) Euskaltzaindiak gomendatzen du etsaigo hitza ez erabiltzea, etsaitasun baizik
- b) Euskaltzaindiaren arabera, -go atzizkia ofizioa eta tasuna adierazteko erabili behar da bakarrik
- c) "Udaltzaingo" hitza ez dago ondo osatuta
- d) "Biztanlego" hitza onargarritzat jotzen da Euskaltzaindiaren Hiztegian

98. Euskaltzaindiaren araei jarraituz baztertzeko zerbait duen esaldia:

- a) Fakultateko Dekanoa Arantza Mendigurenek aurkeztu du txostena.
- b) Bere senar eta alabei utzi zizkieten ondasunak.
- c) Euskara iberierarekin ahaidetuta dagoen teoria defendatu zuen.
- d) Gasteizetik Iruñera izango da datorren Korrikaren ibilbidea.

99. Adieraz ezazu zein den esaldi zuzena:

- a) Jendeak zenbat euskara dakienari begiratu behar zaio.
- b) Ezin dugu jakin jendeak nola erreakzionatuko duenik.
- c) Egoera hobetzen ari delako froga da hori.
- d) Hanka sartu zuelaz konturatu zen

100. Deklinazio okerra duen esaldia:

- a) Eusko Alkartasuneko sektore kritikoaren bilera egingo da bihar.
- b) Alkoholiko Anonimoetan sartzeko erabakia hartu du.
- c) Amnistia Internazionalako idazkari nagusiaren mintzaldia entzun nahi dut.
- d) Ikasle Abertzaleakeko kidea da ikasle hori.

101. Adieraz ezazu zuzen idatzitako esaldia:

- a) Tele-lana jarriko dute astean egun batez gure enpresan.
- b) Tabakorriarekin bete zuen bere pipa.
- c) Ez da komeni hitzez-hitzezko itzulpena egitea.
- d) Eskolak aurrez aurre izango dira urriaren 4tik aurrera.



102. Zein ez da loturik idatzi behar?

- a) Bulegokume
- b) Sasimediku
- c) Erregegai
- d) Erdinozo

103. “Kristau dotrina” sintagman, euskarak erdal adjektibatzen-sistema erabiltzen du?

- a) Ez, izen-elkarketa erabiltzen du
- b) Ez, adjektibo murriztailea delako euskaraz
- c) Bai, adjektibo esplikatiboa delako gaztelaniaz
- d) Erantzun bat ere ez da zuzena

104. Adierazpen izendatzaileen deklinazioaz ari garela, zein da oker idazitako esaldia?

- a) Uda-gau bateko ametseko pertsonaiarena egiten du.
- b) Berriako kazetariak emandako informazioa egiazkoa zen.
- c) Saizarbitoriaren Ehun metron antiheroi gisa agertzen da protagonista.
- d) Hamabi denboraldiz jokatu zuen Bustingorrik Osasunan.

105. Zein EZ da zuzena?

- a) Nafarroa Oinezko antolatzaileek balorazio ona egin dute.
- b) Fagorretik bota zituzten langileak.
- c) Eibarreko futbol-taldea ederto dabil.
- d) Interpoleko agenteak ezustean azaldu ziren.

106. Zein da zuzena?:

- a) Ameriketara joan zen, han hobeto biziko zeneko ustean.
- b) Maite gaituztenaren seinale da egin diguten harrera beroa.
- c) Ekonomia gaizki doalaren berriak ez gintuzke harritu behar.
- d) Euskara Afrikatik datorrelako hipotesiak indarra galdu du azken urteotan.

107. Zein da okerra?

- a) Zure senar eta alabaz hitz egin behar dizut.
- b) liburuaren edukia edo itxurari buruzko kritikak.
- c) Liburuaren hastapen eta bukaeran azaltzen da egilearen izena.
- d) Askok daki ingelesari zein frantsesari buruz.



108. Zein da okerra?

- a) Zure lagun Dublino bizi denari sari bat eman diote.
- b) Antso Azkarra errege ausartari.
- c) Fernando Amezketarra bertsolari ezagunaren ibilerak kontatzen ditu.
- d) Nire lagun Koldo, xirula jotzaile trebeak, kontzertu asko eman ditu aurten.

109. –go atzizkiaz et izen multzokariez ari garela, zein EZ da zuzena?

- a) Euskaraz askotan ez dago izen multzokarien beharrik; nahikoa da plurala erabiltzea: ikasleria / ikasleak, irakasleria / irakasleak.
- b) Oso sarri erabiltzen dira gaur –go atzizkiaz sorturiko eta persona multzo adierazten duten izenak.
- c) Tradizioan oso ohikoa izan da izen multzokarien erabilera.
- d) Euskaltzaindiaren erabakia da izen multzokaria beharrezkoa denean, –eria arizkia erabiltzea.

110. Zein EZ da zuzena?

- a) Zorro dezaket
- b) Pitz dezaket
- c) Hotz ninteke
- d) Denak dira zuzenak.

111. Ordinalen eta banatzaileen idazkeraz ari garela, zein EZ dago ondo idatzita?

- a) N I errepidea
- b) XVII, XVIII eta XIX. mendeetan
- c) XVII., XVIII. eta XIX. mendeetan
- d) Felipe VIak esan duenez

112. Forma hauetatik zein EZ dago Euskaltzaindiak *batzuk*-en deklinabideari buruz erabakitakoen artean?

- a) batzuk
- b) batzuengan
- c) batzurekin
- d) batzuek

113. Aldaera hauen artean zein EZ da hobestekoa Euskaltzaindiaren arabera?

- a) Bide hartan guztian bildu zituzten hondarrak.
- b) Taberna hauetan guztietan ardo ona ematen dute.
- c) Hortik etorri da hau guztiau.
- d) Lankide guzti horiekin egin dugu bilera.



114. Zehaztaper hauetatik, zein EZ da zuzena zenbakien kontuari dagokionez?

- a) Zero eta huts, biak erabiltzen dira, nahiz ez diren gauza bera: bost eta huts, huts eta huts, zero bider zero berdin zero, e.a.
- b) Hiru eta lau zenbakiek bi sistema erakusten dituzte deklinatzeko orduan.
- c) Hogeita berrogei zenbakien anizkoitzetan Hegoaldean beti hogeita erabili izan da; ekialdean ogei, baina hogoi XVII. mendetik, salbu Zuberoan, non hogeita erabiltzen baita egun ere.
- d) Bost zenbakiaren aldaera bortz da, Iparraldeko zenbait hizkeratan erabilia. Hala ere, Nafarroa-Beherean parterik handiengan eta Zuberoan bost esaten da.

115. Partitiboaren erabilera zuzena:

- a) Izen-sintagmak balio generikoa duenean, ezezko perpausetan partitiboaren ordezkari artikulua erabiltzea
- b) Ezezko perpausetan, izen-sintagma partitiboan doanean aditzarekin pluraleko komunztadura egitea
- c) Partitiboan doan izen-sintagmak artikulua eramatea
- d) Baiezko perpausetan izen-sintagma partitiboan jartzea enfasia eransteko

116. Aspektuaren erabilera desegokia ez duen esaldia:

- a) Datorren urtean jubilatzen da Legebiltzarreko idazkari nagusia.
- b) Galdetzen diozu zuk ea gurekin etorri nahi duen mendira?
- c) Eman diezagukezue giltza, mesedez?
- d) Hurrengo urtean hauteskundeak irabazi eta lehendakari-postura iristen zen.



GRAMATIKA- MORFOLOGIA-SINTAXIA (GAZTELANIA)

117. Esaldi hauetan, zeinetan dago egoki erabiltza preposizioa?

- a) El impago dará lugar a la oportuna recaudación en vía ejecutiva.
- b) Quiero hacer esta pregunta respecto de obras sin licencia.
- c) De conformidad a lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018,...
- d) De acuerdo a las competencias de ejecución,...

118. Frase correctamente formada y que no debe ser corregida:

- a) No se trata ni de destruir ni de renegar de lo hecho.
- b) Será preciso iniciar alguna campaña en relación con las víctimas del terrorismo.
- c) Deberán de presentar un escrito en el que se indiquen los nombres y apellidos de las personas afectadas.
- d) Enmienda de totalidad proponiendo un texto alternativo presentada por el Grupo Parlamentario Socialista.

119. Enunciado con construcción preposicional desaconsejable, que debe corregirse:

- a) Discrepamos de algunos aspectos del presente informe, y creemos que a otros no se les da la debida importancia.
- b) Toman la palabra la señora A y el señor B, a quienes responde nuevamente la señora C, para finalmente terminar el debate con la intervención del señor D.
- c) También estoy de acuerdo con que debería fomentarse la cooperación con terceros países y con organizaciones y organismos internacionales.
- d) La sociedad debe dotarse de instrumentos que faculden a la mujer para acceder a cargos directivos.

120. Ejemplo de anáfora confusa que conviene explicitar:

- a) La Consejera de Educación entregó el diploma a la Academia, después de que un representante de esta hiciese el discurso de agradecimiento.
- b) Se leyó el acta y nadie puso ninguna objeción, con lo cual fue aprobada por unanimidad.
- c) Del mismo modo, este pleno solicita el parecer de la comisión para que una delegación de la misma acuda al Foro Mundial de las Mujeres.
- d) El empresario estará obligado al cumplimiento del contrato en lo que se refiere a las disposiciones vigentes en materia de seguridad y salud en el trabajo, así como de las que entren en vigor durante la ejecución del mismo.



121. Enunciado sintácticamente incorrecto:

- a) Dicen ustedes que quieren un acuerdo, que lo dudo, y nos presentan esta moción.
- b) Consideró resuelto el asunto de que se ocupaban ciertos organismos internacionales.
- c) Hay partes del programa que está prevista su regulación en el presente ejercicio.
- d) Con esa intención fue con la que se presentaron a la reunión.

122. Enunciado con gerundio sintácticamente correcto:

- a) Londres cuenta con muchos museos, siendo el Británico el más visitado.
- b) Aprobaron un texto condenando la violencia de género.
- c) Se pone a votación el dictamen, resultando a probado por unanimidad.
- d) Este libro, siendo tan grueso, no cabe en mi maletín.

123. Única frase que no necesita corrección:

- a) En la patera había más de veinte personas, siendo seis de ellas bebés.
- b) La alcaldesa dio por terminado el debate, obligando a los grupos políticos a votar.
- c) El vehículo se salió de la calzada, cayendo por un terraplén.
- d) Se sometió a votación la moción utilizando el sistema de mano alzada.

124. Única frase que no necesita corrección:

- a) El número de casas a construir en esta zona se verá reducido por esta decisión.
- b) Soy de los que pienso que este es un buen programa.
- c) La mayoría de los menores de 13 años han sufrido ciberacoso.
- d) El propósito es incrementar el conocimiento del programa y ganar apoyo para éste.

125. Única frase que no necesita corrección:

- a) Debemos tildar esta medida de excesivamente rígida.
- b) Más adelante versaremos sobre las lesiones descritas en el atestado.
- c) Nuestra industria está urgida de nuevos modelos de gestión e innovación.
